

LANGILE BORROKARI

Errepresiorik ez

MANIFIESTUA

Langile klasea sistematikoki erasotua izaten ari da, garai zailak bizi ditugu, etengabeko injustizietara eta ezjakintasun gero eta handiagora ohituta. Egungo krisi kapitalistak, Covid-19ak markatutakoa eta elite politiko eta ekonomikoek kudeatutakoa, babesgabetasun egoeran uzten gaitu.

Ugariak dira jasaten ditugun errepresio forma ezberdinak: eskubide eta askatasun zibilen urraketa, kontrol sozialera bideratutako inbertsioaren hazkundera, zerbitzu publikoen murrizketa, kaleratzeak, ERTEak, etxegabetzeak eta abar. Fenomeno hauek guztiek modu argian azaleratzen dute sistema kapitalistaren benetako izaera. Langile klasea bere osotasunean izaten ari da kaltetua eta honen baitako zenbait geruza dira ondorio latzenak jasaten dituztenak, esaterako emakume langileak eta pertsona migratuak. Bitartean, gure bizi baldintzen okertzeak aurrera darrai eta auzo proletarioek ofentsiba berriak sufritzen dituzte, kapital handiak aberasten jarraitzen bidean. Aplikatzen den edozein neurri "sozial" mozorro bat besterik ez da bizi dugun miseria ezkutatu nahian, lan erreformak edo mozal legeak indarrean jarraitzen duten bitartean.

Baina krisiek inertzia aldaketak ere eragiten dituzte, kontraesanak ikusarazten dira eta aldaketarako aukerak ekar dezakete. Horren erakusle da langile klasearen sektore ezberdinak gure bizi baldintzen hobekuntzaren eta beharrezko eraldaketa sozialaren alde kalera ateratzea, protesta egitea inoiz baino kriminalizatuago dagoenean: pertsona migratuak, pentsiodunen mugimendua, ikasleria, emakume langileak, lan eskubideen hobekuntzaren aldeko borroak, langile antolakuntzaren adierazpen berriak, etxebizitza, sindikatuak...

Hauek guztiak kontziente dira benetako pandemia, komunikabideek eta botere politiko burgesak ezkututzen dutena, Kapitala bera dela. Honek berez dakarren guztiarekin: pobrezia, klasismoa, arrazakeria, matxismoa eta bere iraupenerako beharrezkoa den errepresioa. Eta azken hau da, errepresioa, egunero kolpatzen gaituena isunekin, identifikazioekin, bigilantziarekin, kontrolekin, atxiloketekin eta kartzela zigorrekin. Azken urtean mekanismo hauek indartu egin dira, baina argi dago ez direla elementu berriak gizarte kapitalistan.

Errepresio testuinguru honetan, Covid-19aren agerpena baino hilabete batzuk lehenago, Bilboko Langile Autodefentsa Sarea (LAS) sortu zen. Langile klasearen autodefentsarako sare bat, borrokarako tresna gisa aurkezten duena bere burua eta pausuz pausu baina determinazioz eratzen ari dena. Bere helburua langileen autoantolakuntza bultzatzea da, lanpostuetan jasaten ditugun gehiegikerien aurka borrokatuz, gure bizi baldintzak defendatu eta hobetzera bidean. Hau, autoantolatutako langileen artean osatutako sare baten bitartez gauzatzen du, lan gatazkak ikusarazi eta politizatuz eta hauekiko elkartasun erantzunak antolatuz.

Azaro bukaeran, migratutako emakume langile baten salaketaren harira, lan gatazka bat abiatu zen Limpiezas Arana - Fernandez Aguilar enpresan. Langilea kontratu gabe eta erabateko babesgabetasun egoeran zegoen. Bilboko Uribarri auzoan dagoen enpresa honek erdi-esklabutza egoeran mantentzen ditu hainbat emakume langile. Gatazkari hasiera emateko, beste kasu batzuetan bezala, zilegitasun osoko eskakizun konkretuak egin zitzaizkion jabeari. Ondoren, enpresak aurrera eramaten dituen gehiegikeriak azaleratu ziren, langilearekin elkartasunean mobilizazioak antolatuz, kasua sozializatuz, auzoan mahai informatiboak antolatuz eta abar. Ekintza hauek guztiak borroka sindikalaren baitan kokatzen dira, berau delarik LASEk aurrera daraman jarduna.

Lan gatazkari hasiera eman eta hilabete batzuetara, jabeak jarritako salaketaren harira, lehen kolpe errepresiboak heltzen dira Ertzaintzaren partez. Enpresaren aurrean burututako mobilizazio baten, dispositibo polizial handia ezarri zuten, hainbat identifikazioarekin bukatu zena eskuorriak banatu eta megafono batekin hitz egitea bezalako ekintzengatik. Ondoren, hainbat kidek zitazioak jaso zituzten epaitegietatik mobilizazio publikoen deialdia egin eta komunikabideetan elkarrizketak egiteagatik. Aste batzuk beranduago, espainiar Poliziak sei militante atxilotu zituen haien etxeetan, kaltetutako langilea bera barne. Akusazioa estortsio jarraitua delarik. Bost urtera arteko espetxe zigorra suposatu dezakeen delitua, hain zuzen.

Bistakoa da, lan gatazka baten baitan auto-antolatutako langileen erantzuna eta eskubideen defentsa guztiz zilegia estortsioagatik epaitua izateak suposatu dezakeen aurrekari larria. Argi geratzen da errepresioa klase dominatzailearen boterea betikotzeko ezinbesteko arma dela errepresioa, borrokak ahuldu eta kriminalizatuz. Bitartean, ekintza benetan biolentoak ezkututzen dituzte, esaterako enpresa honek era zigorgabea aurrera daramatzanak, bizi baldintza miserableak imposituz langileei. Hori guztia, zuzenean burgesiaren interesei erantzuten dion aparatu polizialari esker, haien baliabide guztiak erabiliz burutzen dituzten bidegabekeriak ikustarazten dituen borroka adierazpen oro erreprimitzeko. Beste behin ere, langile klasearen borrokari egindako eraso baten aurrean aurkitzen gara. Hainbeste gehiegikeriaren aurrean ezetz esan eta sistema honen baitan isolatuak eta baztertuak aurkitzen diren hoiekiko elkartasun erantzunak antolatzeagatik jasotako erasoak. Patronalaren erasoaren aurrean defendatzeko eskubide guztiz zilegia erreprimitzen ari dira. Eraldaketa sozialaren aldeko borroka erreprimitzen ari dira. Mundua sostengatzen duen klasea erreprimitzen ari dira.

Beharrezkoa da egoera honi buelta ematea, gure indarrak handitzea, errepresioaren aurrean borrokatu eta elkartasuna antolatzeko fronte komun bat osatzea.

Borroka langile klase osoarena delako. Korapiloa askatu.

korapiloaskatu.eus

